



EBAZPENA, LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA. EBAZPEN HORREK LAN-KONTRATUDUN LANGILE FINKOEN, LANPOSTU HUTSAK BETETZEKO BITARTEKOEN ETA MUGAGABE EZ-FINKOEN IKASTETXEEN URTEKO ESLEIPENA PARTZIALKI ERA TELEMATIKOAN EGITEKO PROZEDURAREN DEIALDIA EGITEN DU, BERRITZEGUNERA ATXIKITAKO FISIOTERAPEUTA, TERAPEUTA OKUPAZIONAL ETA HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO ESPEZIALISTA KATEGORIETAN.

Zonako Berritzeguneetako lanpostuei atxikitako langileen artean ikastetxeak esleitzea lan-kontratu finkoa, lanpostu hutsak betetzeko bitarteko lan-kontratua edo lan-harreman mugagabe ez-finkoa duten fisioterapeuta, terapeuta okupazional eta hezkuntza-laguntzako espezialistaren kategorietan, langileak planifikatzeko eta kudeatzeko ondoz ondoko jardueraz osatutako prozesu baten hasiera da. Prozesu horren helburu nagusia hasten den ikasturteko matrikularen arabera hezkuntza-zerbitzua emateko beharrezkoak diren hezkuntza bereziko plazak zehaztea da, eta ikastetxeei beren jardura gauzatzeko hezitzaile egokiak eta nahikoak ematea.

Zonako Berritzeguneetako lanpostuei atxikitako langileen artean ikastetxeak esleitzea lan-kontratu finkoa, lanpostu hutsak betetzeko bitarteko lan-kontratua edo lan-harreman mugagabe ez-finkoa duten fisioterapeuta, terapeuta okupazional eta hezkuntza-laguntzako espezialistaren kategorietan Hezkuntzako sailburuaren 2019ko ekainaren 4ko Aginduan dago araututa. Agindu horren bidez, lanpostuaren adjudikazioa arautzen zaie fisioterapeuta, terapeuta okupazional, hezkuntza-laguntzako espezialista, transkribatzaile edo materialaren egokitzaile eta zeinu-hizkuntzako interprete kategorietan ordezkapenak egiteko hautagai-zerrenden parte direnei, eta ezartzen da lan-kontratudun langile finkoei, mugagabe ez-finkoei eta bitartekoei zentroen urteko esleipena egiteko prozedura, fisioterapeuta, terapeuta okupazional eta hezkuntza-laguntzako espezialista kategorietan.

Aginduan araututako prozedura honen premisetako bat Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko lan-legepeko irakasle eta hezitzaileen Hitzarmen Kolektiboa da. Hitzarmen horren 14. artikuluan langile horiek artatu beharreko ikastetxeen banaketa arautzen da.

Prozesua urtero deitzen da Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenaren bidez. Ebazpen hori ekainaren hasieran argitaratuko da Hezkuntza Sailaren webgunean, eta bertan egutegia eta parte-hartzaileen zerrenda zehaztuko dira.

Horregatik guztiagatik,

EBAZTEN DUT:

Lehena.- Prozesua deitzea.

Lan-kontratudun langile finkoen, lanpostu hutsak betetzeko bitartekoen eta mugagabe ez-finkoen ikastetxeen urteko esleipena partzialki era telematikoan egiteko prozedura deitzen da 2025/26 ikasturterako, Berritzegunera atxikitako fisioterapeuta, terapeuta okupazional eta hezkuntza-laguntzako espezialista kategorietan.

Bigarrena.- Ikastetxeak esleitzeko prozesua.

Prozesua egingo da ebazpen honek ezarritakoarekin bat: ebazpen bateratua, 2025ko maiatzaren 15ekoa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena eta Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako zuzendariarena, zeinaren bidez sistema informatizatua ezartzen den lan-kontratudun langile finkoei, lanpostu hutsak betetzeko bitartekoei eta mugagabe ez-finkoei ikastetxeen urteko esleipena partzialki era telematikoan egiteko prozedura, berritzegunera atxikitako fisioterapeuta, terapeuta okupazional eta hezkuntza-laguntzako espezialista kategorietan.





Hori guztia Hezkuntzako sailburuaren 2019ko ekainaren 4ko Aginduaren 19. artikuluekin bat. Agindu horren bidez, lanpostuaren adjudikazioa arautzen zaie fisioterapeuta, terapeuta okupazional, hezkuntza-laguntzako espezialista, transkribatzaile edo materialaren egokitzaile eta zeinu-hizkuntzako interprete kategorietan ordezkapenak egiteko hautagai-zerrenden parte direnei, eta ezartzen da lan-kontratadun langile finkoei, mugagabe ez-finkoei eta bitartekoei zentroen urteko esleipena egiteko prozedura, fisioterapeuta, terapeuta okupazional eta hezkuntza-laguntzako espezialista kategorietan.

Hirugarrena.- Egutegia.

Ikastetxeak esleitzeko prozesua ebazpen honen A eranskinean fase bakoitzerako ezarritako egutegiaren eta ordutegiaren arabera egingo da.

Laugarrena.- Eskaintako beharrak.

2025/26 ikasturterako eskaintako beharren zerrenda eta horien ezaugarriak B eranskinaren bidez argitaratzen dira.

Esleipen-prozesu horretan, Berritzegunera atxikitako beharrak eskainiko dira, kategoria hauetan:

- a) Fisioterapeutak.
- b) Okupazio-terapeutak.
- c) Hezkuntza-laguntzako espezialistak.

Bosgarrena.- Parte-hartzaileak.

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2025ko maiatzaren 15eko Ebazpenaren bidez, ikastetxeak esleitzeko prozesu honetako parte-hartzaileen behin-behineko zerrenda argitaratu zen, bai eta parte-hartzaile bakoitzari buruzko datuak ere, lehentasun-irizpideei eta berdinketa hausteko irizpideei dagokienez.

Ebazpen horretan bertan, erreklamazioetarako epea eman zen, eta 2025ko maiatzaren 20an izan zen lehenik eta gero maiatzak 22ra luzatu zen.

Hainbat erreklamazio jaso dira; beraz, ebazpen honetan, C eranskinaren bidez argitaratzen dira erreklamazioak baiezteko/ezesteko arrazoiak. Era berean, D eranskinaren bidez, argitaratzen da ikastetxeak esleitzeko prozesu honetan parte hartu dutenen behin betiko zerrenda eta parte-hartzaile bakoitzari buruzko datuak argitaratzen dira lehentasun-irizpideei eta berdinketa hausteari dagokienez, Berritzegune, kategoria eta lan-harremanaren arabera banakatuta (finkoak eta mugagabe ez-finkoak/lanpostu hutsak).

Vitoria-Gasteizen, sinaduraren data orduan

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

UNAI NIETO MARIJUAN